



KULTUR JARDUEREN AGENDA

IRAILETIK URRIRA
2020

ARANGUREN IBARRA



ANTOLATZAILEA



Casa de Cultura
del Valle de Aragona



BABESLEAK



Nafarroako
Gobernua
Gobierno
de Navarra

LAGUNTZAILEAK



KONPROMISOA HARTZEN DUGU KULTURAREKIN ZU ERE KONPROMETITZEN AL ZARA?



D Kultura Arlotik bertan behera geratu ziren proposamen guztiak eta baita beste sorpresatxoren bat ere eskaintzeko lanean aritu gara. Egoera berri honetan, gure ingurunea gozatzeko, amets egiteko eta hazteko espazio seguru bihurtzeko konpromisoa hartzen dugu. Horretarako behar diren neurri guztiak bermatu ditugu, beraz... orain zu bakarrik falta zara!

ZURETZAKO SEGURUA DEN ESPAZIOA ESKAINTZEKO KONPROMISOA DUGU:

- ➔ Eskuak garbitzeko gela sarreran
- ➔ Ibilbide eta segurtasun tartek markaturik
- ➔ Arautegiaren araberrako edukierak
- ➔ Besaulkien patioaren zenbakitze berria, aurretik egokitutako eserlekuekin.
- ➔ Funtzioen arteko desinfekzio eta aireztatzea.

ETA ZUK? HARTUKO DITUZU KONPROMISO HAUEK?

- ➔ Uneoro ezarriko diren arauak errespetatzea
- ➔ Saioek irauten duten bitartean musukoa jarrita edukitzea
- ➔ Auditorioan ez jatea edo edatea
- ➔ Puntuala izatea, mugikorak isilaraztea eta argazki edo grabaketarik ez egitea
- ➔ Burua ireki eta gozatzea
- ➔ Zure ekarpen eta iradokizun guztiak gure helaraztea

SARREREN SALMENTARI BURUZKO BERRIAK

» **Zenbakitutako sarreraren salmenta:** edukiera osasun eta prebentzio gaietan eskumena duten agintariak markatutakoa izango da. Auditorioan sartzen diren pertsona guztiak eserlekua okupatu behar dute (edukiera kontrolatzeko kontuan hartzen diren haurtxoak barne, indarrean dagoen segurtasun araudiaren arabera) eta ezin izango da edukiera hori gainditu. 2/1989 Foru Legea*.

Sarrerak, bere kasuan jarduera bakoitzean zehaztutako prezioan, horrela erosi ahalko dira:

- » **Aldez aurretik:** jardueraren asteen bertan, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara, Kultur Etxeko harrera mahaian.
(gehienez 4 sarrera pertsona bakoitzeko)
- » **Jardueraren egunean:** sarrerak geratzen baldin badira, funtzioen hasiera baino ordu erdi bat lehenago.
- » Aurretik erositako sarreraren itzulketarik ez da onartuko.
- » Jarduera bakoitzean hasiera ordua, adina eta zeineri zuzenduta dagoen zehazten da. Jarduera bakoitzaren ordutegi, data eta adinari erreparatu, mesedez.



OHARRA!

IRAILAREN 15ETIK AURRERA GURE ORDUTEGIAK ALDATUKO DITUGU

- » **KULTUR ETXEAK 9:00ETATIK 13:00ETARA ETA 14:00ETATIK 21:00ETARA IREKIKO DU, ASTELEHENETIK OSTIRALERA.**
- » **LEIHATILAREN ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 10:00-13:00 // 17:00-21:00**
- » **LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 9:00-13:00// 14:00-20:00**
- » **GURE ZERBITZUA HOBETZEKO LANEAN ARI GARA.**

- » Ikuskizunetan, auditorioko ateak irisgarriak egon beharko dute eta edozein elementutatik libre. Kultur Etxean programatutako ekitaldietan ezin da aukitxoekin sartu. 2/1989 Foru Legea*.
- » Aranguren Ibarreko Udalak bere egiten du aipatu gomendioak errespetatzen ez dituzten pertsonak ez onartzeko eskubidea.
- » Programazio aldaketak edo gorabeherak: egoerak hala eskatuko balu, Kultur Etxeak iragarritako datak, ordutegiak, programak eta interpreteak aldatu ahal izango ditu. Kultur Etxeko karteldegian jakinaraziko da.
- » Kultur Etxeko arduradunek arau hauek betearazteko baimena dute.
- » *2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituenak.

**PROGRAMATUTAKO JARDUERA ETA IKUSKIZUNEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO JASO
NAHI BADUZU, DEITU TELEFONO HONETARA: 948 29 14 89**

Casa de Cultura del Valle de Aranguren  Kultur Etxea Aranguren Ibarra

Eguzki Plaza - 31192 Mutiloa (Nafarroa) - Telefonoa (taquilla): 948 29 14 89

E-posta: cultura@aranguren.es

Jarrai gaitzazu Facebooken: [@casadeculturaarangurenkulturetxea](https://www.facebook.com/casadeculturaarangurenkulturetxea)

AGENDA

KULTUR JARDUERAK

FAMILIAN

Urriak 4, 18:00
"Emocionario"
Dubbi Kids taldea

Urriak 11, 17:00 (gazt)/18:30 (eusk)
"Zurginaren ipuina"

Urriak 14, asteazkena 18:00etan
"Numenak"
Yarleku taldea

Urriak 25, 18:00
"Eureka"
Dubbi Kids taldea

ERAKUSKETAK

"Urriak 1etik azaroaren 1era"
Pedro Salaberri

IPUINKONTALARIA

18:00etan → Aranguren Ibarreko Kultur Etxea AUDITORIUMEAN
DOAKO SARRERA



GAZTE ETA HELDUAK

Irailak 27, 19:00
"Catástrofe"
La Caja Flotante

Urriak 2, 20:00
"Everybody needs heroes"
Xabier Artieda

Urriak 16, 20:00
"Zaldi Urdina" (Euskaraz)
Artedrama

Urriak 18, 19:00
"Losers"
Txalo produkzioak

Urriak 24, 19:00
"Tránsitos"
Amico Teatro

Gaztelaniaz

Irailak 30. (Ventura Ruiz)
Urriak 21. (Birjiñe Albira)

Euskaraz

Urriak 28. (Ventura Ruiz)

Inglesa

Urriak 7. (Hannah Berry)



ANTZERKIA

La Caja Flotanten "Catástrofe"

Max Saretan antzerki-egile onenaren sarirako izendatua

Dramaturgia: Antonio Rojano

Zuzendaria: Iñigo Rodríguez Claro

Aktoreak: Ion Iraizoz, Jose Juan Rodríguez, Irene Ruiz, Mikele Urroz



Lau aktorek oraindik egin dezaketen leku bakarretik hitz egingo digute: fikzioak zeharkatutako "ni" baten biluztasunetik. Eskuzabalak dira, eta beren biografia posibleak konpartitzen dituzte, beren biografien negatiboak: izan ez diren eta izango ez diren emakumeen eta gizonen bizitza. Catástrofe abentura suizida bat da, eta inoiz inor itzuli ez den amaiera horri zuzen begiratzen dio.

▷ Irailak 27, igandea
19:00etan

▷ GAZTE ETA HELDUENT-
ZAKO JARDURA

▷ SARRERA: 6 €

↳ Iraupena: 100 min

DRAMATURGIA BERRIEN TAILERRA

Lantegi honen helburua da jendea hizkuntza eszeniko berriei eta "Katastrofe"-ren unibertsoko funtsezko elementuei buruzko oinarritzko ezagutza batzuk ematea.



CIRCUITO DE LA
RED DE TEATROS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
ANTZOKI SAREAREN
ZIRKUITUA

IZENA EMATEAK: Astelehena 21era arte, cultura@aranguren.es postaren bidez. Mugatutako plazak.

"Circuito de la Red de Teatros de Navarra - Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitua" diruz-lagundutako jarduera.

TALLER

▷ Irailak 23ko
tailerra, 19:00etan
(Auditorioan) Doako
sarrera aurretik
izena emanda

▷ SARRERA DOHAINIK,
IZENA AURRETIK
EMANDA

PINTURA ERAKUSKETA

Gure Ibarrari begirada bat PEDRO SALABERRIEN eskutik



1999an Aranguren Ibarreko Kultur Etxea inaguratu berria zegoelarik erakusketa bat egin nuen bertan. Berriz ere areto berean Ibar apal eta eder honetako margoak jendaurrean jartzeak erabat asebetetzen nau. Pedro Salaberri.

▷ Urriaren 1etik
azaroaren 1era.
10:00etatik
13:00etara eta
17:00etatik
21:00etara, aste-
henetik ostiralera

ANTZERKIA

“Everybody needs héroes” Xabier Artiedarena

“Delirioa, jokoa eta umore zentzugabea komedia zoro eta dibertigarri baterako.”

Zuzendaria: Rubén Hernandez y Julio César T.L

Aktorea: Xabier Artieda



Gure eguneroko bizimoduan heroikotzat ditugun pertsona edo fantasia horien guztien ispilu den komedia eroa. Bidaia honetan, ikusleak hainbat pertsonaia ezagutuko ditu muturreko egoerak bizitzen, eguneroko lanak egiten saiatzen diren bitartean. Jolas bizia, eldarnioa, eta batzuetan zentzugabea, zurekin batera joango dira bidaia dibertigarri honetan.

- ▷ **Urriak 2, Ostirala 20:00etan**
- ▷ **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**
- ▷ **SARRERA: 6 €**
- ↳ **Iraupena: 60 min**

HAUR ETA FAMILIENTZAKO ANTZERKIA

“Zurginaren ipuina” Taldea: Trokolo Teatro

Haren dotoreziak, umoreak eta ironiak harrapatuko zaituzte harrapatuko zaituzte

Antzezleak: Sergio de Andrés y Ramón Marco



Behin batean, bazen Firmin izeneko zurgin fin eta delikatua. Behin batean, zurginak oso eskari berezia jaso zuen, oso bezero berezi batek egina: Von Bombus Baroiak egina, hain zuzen. Firminek lana zerratu, iltzatu, lixatu... eta enkargua garaiz bukatu zuen. Baroia poz-pezik gelditu zenez, bezero bitxi horrek askoz ere enkargu gehiago egin zizkion zurginari. Iban Barrenetxearen ipuinean oinarritutako istorio ederra.

- ▷ **Urriak 11, igandea 17:00etan (gaztelaniazko bertsioa)**
- ▷ **18:30ean (euskarazko bertsioa)**
- ▷ **JENDE GUZTIARENTZAKO JARDUERA (ADIN GOMENDATUA 3 URTEK GORA)**
- ▷ **SARRERA: 3 €**
- ↳ **Iraupena: 55 min**

MUSIKA ANTZERKIA → FAMILIAN

Dubbi Kids “Emocionario”

Show paregabea, dibertigarria eta oso parte-hartzailea



EMOCIONARIOn oinarritutako antzerki-kontzertua. Literatura-iraultza ekarri duen haurrentzako liburua da EMOCIONARIO. Showak etxeko txikienei emozioak hurbiltzen dizkie, musikaren eta jolasaren bidez sentitzen dutenari izena ematen lagunduz.

- ▷ **Urriak 4, igandea, 18:00etan**
- ▷ **GOMENDATUTAKO ADINA, 3 URTEK AURRERA**
- ▷ **SARRERA: 3 €**
- ↳ **Iraupena: 60 min**

FAMILIENTZAKO ANTZERKIA → EUSKARAZ

“Numenak” Yarlekuena

Basajauna, Lamia, Sorgina... egoera dibertigarrietan



Antzezleak: Eva Azpilikueta, Laura Villanueva, Javier Napal eta Txetxu Kollado
Zuzendaritza: Mercedes Castaño


Inguru menditsu batetan, Lanbro eta Leka, bi galtzagorri bihurri, ez dakite nor duten ama. Letxua, kasu hontan txori batez irudikatuta, zalantza hori ebazten lagunduko dituela baieztan die, aldiz okertu eta galdu baino ez ditu egiten. Bidean, gure protagonistak, pasarte dibertigarrietan, pertsonai mitologiko desberdinekin egingo dute topo.

- ▷ **Urriak 14, asteazkena 18:00etan**
- ▷ **IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA**
- ▷ **SARRERA: 3 €**
- ↳ **Iraupena: 60 min**

ANTZERKIA → EUSKARAZ

“ZALDI URDINA” Artedrama-ren eskutik

Droga-munduari aurrez aurre begiratzen dion antzerki roud moviea



Egileak: Una Iturriaga e Igor Elortza
Zuzendaria: Ximun Fuchs
Antzezleak: Ander Lipus, Manex Fuchs, Urko Redondo, Miren Alcalá, Oier Zuñiga, Edurne Azkarate, Olatz Beobide

Aingeru, 17 urtekoa, desagertu egin zen musika jaialdi batean beste gazte batek bihotzekoa izan eta bizia galdu ondoren. “Zaldi urdina” izeneko droga berri batek hil zuela dirudi. Aingeruren bila dabil polizia. Amets, ahizpa gazte osasuntsu eta bihurriak, Karmen amona eta Simón garai bateko albiente katastrofikoak, Aingeru poliziek baino lehen aurkitu nahi dute ...

“Circuito de la Red de Teatros de Navarra - Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitua”-k diruzlagundutako jarduerak

▷ **Urriak 16, ostirala**
20:00etan

▷ **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

▷ **SARRERA: 6 €**


↳ **Iraupena: 80 min**



UMOREZKO → ANTZERKIA

“LOSERS” Txalo producciones-en eskutik

Barre-argara bat baino gehiago ekarriko digun komedia eta errealitatearen batura



Egilea: Marta Buchaca
Zuzendaria: Begoña Bilbao
Antzezleak: Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia

Manuel eta Sandra adinean aurrera doaz -ia berrogei-, eta gizakiok tenore horretara ailegatuta, gizarteak markatutako baldintzetatik ez dute bat bera ere betetzen: Horregatik, euren buruak galtzailatzat dituzte. Eta aldatzeko esperantza handirik gabe, ia-ia etsiak jota. Bizipozak, ordea, ez du mugarik eta areago, ez du zer ikusirik ondasun materialekin edo gizarteak markatzen dituen usadio eta arauen menpe bizitzarekin. Gu geu gara gure bizitzak nolako beharko duen erabaki behar dugunak. Manuel eta Sandrak bakarti bizitzeari utzi nahi diote Goibel antza bizi dira, baina pozik bizi nahi dute. Lortuko al dute?...

▷ **Urriak 18 Igandea**
19:00etan

▷ **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

▷ **SARRERA: 6 €**

↳ **Iraupena: 80 min**

ANTZERKIA/DANTZA/MUSIKA

Amico Teatroyen “TRANSITOS”

Nafarroako Gobernu DNA Dantza Jaialdia

Zuzendaritza: Mercedes Castaño

Antzezleak: Ion Barbarin y Txori García Uriz

Eszenografia: Dora Salazar



La pieza es un viaje íntimo en diferentes episodios hacia la búsqueda de la identidad y pone el foco en las pasiones humanas. En la luz, explora la sensualidad, la fusión, la feminidad y la armonía. En la sombra, la dualidad que nos compromete, la aceptación, las contradicciones y los conflictos, en ocasiones brutales. En la oscuridad, desciende al humor en lo trágico y a la latencia de lo grotesco.

DNA '20

▷ **Urriak 24 larunbata**
19:00 etan

▷ **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

▷ **SARRERA: 6 €**

↳ **Iraupena: 70 min**

HAUR ETA FAMILIENTZAKO ANTZERKIA

“Eureka”. Taldea: 'El Cau de L'Unicorn'

Txotxongilo erraldoiak; antzezleak argi beltzetan, giro-usainetan bilduak (esentzia naturalak)

Antzezleak: Miren Larrea eta Valentina Raposo



Antzezlanak Tinaren istorioa kontaktzen du. Oso neskato bihurria da eta, beti, aitonen laborategira joaten da jolastera. Aitonak, oraingo honetan, robot berezi bat asmatu du, hologramak agerrarazteko ahalmena baitauka. Aitonak Tinari esan dio egiten ditugun gauzak ez direla betirako galtzen, baizik eta espazioan barna bidaiatzen dutela. Orain, robot horren bidez, gauza horiek erreskatatu eta berriro bistaratu daitezke.

▷ **Urriak 25, igandea**
de marzo 18:00etan

▷ **JENDE GUZTIARENZAKO JARDUERA (ADIN GOMENDATUA 4 URTEK GORA)**

▷ **SARRERA: 3 €**

↳ **Iraupena: 50 min**

HELDUENTZAKO ZAHARBERRITZE ETA PINTURA IKASTAROAK

SOILIK IKASLE BERRIEN AURREIZENEMATEA, PLAZA HUTSEN ARABERAKOA

Irailaren 14tik, astelehena, 18ra, ostirala, 11:00etatik 13:00etara, 948 29 14 89 telefonoan. Plazak zozketaz esleitu dira Aranguren Ibarrean erroldaturik daudenek lehentasuna izango dutelarik



ZAHARBERRITZEA

49 ordu. Lauhilekoa

Erroldatuak: **82 €**
Erroldatu gabeak: **14 €**

ORDUTEGIA:

1 Taldea: astelehena, 09:30etik 13:00etara.
2 Taldea: astelehena, 16:30etik 20:00etara.
3 Taldea: ostirala, 09:30etik 13:00etara.
4 Taldea: ostirala, 16:30etik 20:00etara.

Jardueraren hasiera: urriko lehen astea.

Lekua: Idoi plazako lokalak (Mutiloa).

Emalea: Josune Ilundain

HELDUENTZAKO PINTURA

60 ordu. Lauhilekoa

Erroldatuak: **113,5 €**
Erroldatu gabeak: **227 €**

ORDUTEGIA:

1 Taldea: astearte eta ostegunak: 10:00- 2:00
2 Taldea: astearte eta ostegunak: 16:00- 8:00
3 Taldea: astearte eta ostegunak: 18:00-20:00

Jardueraren hasiera: Irailak 29.

Lekua: Ibaialdeko lokalak (Mutiloa).

Emalea: Isabel Erro.

MUGATUTAKO PLAZAK.

ARANGUREN IBARREKO GAZTE ETA HELDUENTZAKO ANTZERKI TAILERRA

Betidanik antzerkia egin nahi izan baduzu eta ez badakizu nondik hasi... Zure burua adierazi, libre sentitu, hazi, ezagutu... nahi baduzu, Irudikatzen duzuna egi bihurtuko den, beste bizi batzuk eta mila alderdi, sensazio eta emozio bizitzeko leku baten bila bazabiltza...

APUNTA ZAITEZ ANTZERKIRA!



Horretarako, tresnak ezagutuko ditugu, ariketak egingo ditugu, barre egingo dugu, emozionatuko gara eta ikasiko dugu. Pertsona bakoitzak bere aukerak garatu ahal izateko egitasmo bat aukeratuko dugu eta 2021eko otsailaren bukaeran estrenatuko dugu.

Iratxe García Uriz eta Leire Ruiz aktoreek emango dute tailerra.

16 urtetik gorakoentzako izango da (Ibarrean erroldaturik daudenak).

Iraupena: urriaren 17tik 2021eko otsailaren 28ra.

Ordutegia: larunbat goizetan 11:00etatik 14:00etara. Otsaileko azken astean egingo dira antzezlanaren entsegu orokorrak (20:00etatik 22:00etara gutxi gora behera), astelehenetik asteazkenera, eta emankizuna ostegunetik igandera izango dira.

Lekua: Aranguren Ibarreko Kultur Etxea.

Doako izen emateak: Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko harrera mahaian edo 948 29 14 89 telefonora deituz urriaren 1etik, osteguna, 7ra, asteazkenera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera.

Plazak mugatuak dira eta zozketa bidez esleitu dira.